

### 1. OROIMENIK GABEKO FILMA

nik ez dut araztasuna espero, horrexegatik urtu behar zaitut eguzkiaren kontra. nik ez dut goentasuna espero, horregatik arrastatu beharrean nago nere irrifarra. eta lurra usaitu, irentsi, jan, musukatu xixare esklerotikoak. esperantza espero gabe. gizakiak erraiak trukutzen, eskaintzen. esku bilakatzen diren beluseko sexu leun, goxo, biziak bezala, eromenaren aukerarako gai eta libre. eskatu, exijitu, uko egin. arnastu, arnasarazi. hori bai espero dut.

barne-muina indartzeko elika gaitzala bideak, ze zikoizkeria naiz, amorrua naiz, beldurra naiz. mesfidantza, estomakak lehertzen dituen mendeetako giza-kontzientzi urratua. bizkarreko iltzeak ez dira hegalak; munduko bazter orotan entzuten dira mailukadak.

ozeanoaren erdian aurpegia ta erraiak garbitu. berrasmatuko dut. belauniko, zutik, etzan. maitasuna berrasmatuko dut.

eraman nazazu, eraman nazazu.

ez gera, ez bai gera. ez gera, ez bai gera kotoizko panpin higatu bustiak, azkazaletatik amalurrari itxekiak, ahozkatzeak beldurtzen duen hitzaren hezurdura bezala, biriken atean zeharkatua hitzaren hezurdura bezala. biriken atean zeharkatua.

zerbait gehiago. gehiago.

### 2. EZ ZAITUT SOMATU IRISTEN

norberak badu bere haria korapilo honetan. honela eraikitzen dugu isiltasunaren hiria. elkargune honetan ikasi genuen gizajaleak izaten, irrifarra galdu gabe. gauez sarea josten soto ezkutuenetan. hezetasun mutuak gatza ereiten du gure aho idorretan. etzaitut sumatu iristen. zoaz isilean. dagoeneko baztertu baitut burutik etorkizunaren zama iraunkorra. korapilo honetan norberak badu bere haria. korapilo honetan norberak badu bere haria. gauak ezin amesgaiztoak irentsi eta haragiak ez gaitu elikatuko.

bi haur, ezerezari begira, trikuak ferekatzen, muxukatzen satorrak, euren hezurretan zubiak asmatzen. animalia lotsatuen putzuan. zeruertzaren hortzak, beldurraren ezpain zorrotzak. isiltasunean. isil-isilik galdezka.

korapilo honetan norberak badu bere haria.

korapilo honetan norberak badu bere haria.

ez du aurrera egiten gau ortopedikoak. oihartzunak ta irudiak metatzen doaz, emeki baino ziur. negua ate azpitik sartuko da. saihestezinaren dotorezia eta irmotasunaz. ta lo egin behar duzu. lo egin behar duzu zure oinetan esnatu arte. beste izaki bat makurka dabil. beste izaki bat makurka dabil; zure izatearen barnean.

zilar ile-ordea jantzi ta aldatu dut nire hizkera. etsai dut ordea ispilua. itsasoaren zurrumurrua entzun nahi, bederen interfonoan. tematia da gibeleraino desiratu ez den isiltasuna. ta lo egin behar duzu. lo egin behar duzu. orain zure begiak, zure begiak satorrak dira. ta satorraren begiak, gidariak.

beste izaki bat makurka dabil zure izatearen barnean, ta lo egin behar duzu. zure oinetan esnatu arte. esnatu arte. dena dirudi hil ostekoa. sekula ez gera gugan bilakatuko. sekula ez gera gugan bilakatuko. sekula ez gera gugan bilakatuko.

### 3. OINAZEAREN INTIMITATEA

etzero etorri nire festara. ez naiz joan zure ehorzketara. zure liburu ta lepokoan zaintzan nabil, pipiez elikatzen egur-ganbaran, ta oroimenaren begi anitzak irensten kolorez aldatzen duten bakoitzean.

oinazearen intimitatea. oinazearen intimitatea. oinazearen intimitatea. oinazearen intimitatea.

zure haragi-soinekoa birjosten ari naiz ta idazteko makinari orratzak sartzen. letrak odol tantak bezala sakabanaturik baino etenik gabe itsaso korrontean. elbarrituen aparra, horixe dira olatuak. ta mespretxuaren usaina dakarkigute. desioaren diseinuak akatu du maitaleen immunitatea.

animalia lotsatuen lokatz-putzuetan.

animalia lotsatuen lokatz-putzuetan.

gau-zero horzgabe honetan ari dira erortzen berunezko izarrak. sasitara erortzen.

animalia lotsatuen lokatz-putzuetan.

animalia lotsatuen lokatz-putzuetan.

animalia lotsatuen lokatz-putzuetan.

#### 4. GORDINTASUNAREN OTORDU LUZEA

zerua larrutzen ari gera gure azkazal kamutsekin. eguzkiloreetatik odol tantak biltzen mingain puntarekin. zein gordinik sumatzen dudan haragiaren hezurdura.

zein gordinik sumatzen dudan haragiaren hezurdura. galdutakoa ez da sekula bueltatuko. haurrak ginen, basoan galdu. noizbait bueltatu ote?

galdutakoa ez da inoiz bueltatuko. bizirik dagoena ez da inoiz sendatuko, bizitzak ez baigatu bizitzen eta desioak ez gaitu desio. galdutakoa ez da inoiz bueltatuko. barne-suaren bila abiatzen garen aldiro kostaldeko lanbroan desagertzen gera.galdutakoa ez da inoiz bueltatuko. eskuz esku bidaitzen doaz otoitzak ta gorrotoak. garaipenak eta ezintasunak. eskuz esku amodioaren ezpain zeharkatuak. odolaren mina ta erotismoa. eskuz esku giltzak, eskuz esku labainak arimaren bitartez haragiaren bila. bata besteari lotuak.

bizirik dirauenak ez beza ahaztu norberaren bakartasuna. bitartean, ederra bezain mingotsa da bizitza; lagunok, jakin tristura ez dela gauzarik tristeena. lagunok, egin mesede, izenik ez ahaztu; sasoi epelenetan ere behar zaituztet, ilargiaren ertz zorrotzak sekulan ez baitira kamusten.

#### 5. LAZTAN ISILEN DEIADARRA

gauaren mingainak bilduko gaitu laster. banan-banan. irudi urratuen horma erraldoian txertatzearen. aski laster. aski laster. bitartean graffiti kolorgeak bihotzari odola eske beirazko urjauzi honetan birsortu gaitezen. birsortu gaitezen. hemen nago, hemen gaude esanaz. hemen nago, hemen gaude sinetsiaz.

gose bezain ase, koldar bezain ausart, harro bezain xume. eztarriaren idorrak mintzoa du amets. finkapenak gaudituz; hartu, eutsi, txikitu, izu gordinak ehortzi. hasi, altxa eta sortu. hemen gaude. hemen nago. betikoa izanik. sekula bera ez.

gauza txikien beharra, laztan isilen deiadarra elur-gailurretako kaliza lakuetan, hezur-memoria, gure arimen dantza leial, dardartia.

ezinaren galderak. ezkutatuko kaiolak ohe azpian. burmuinean, zain gorrien paduretan. kaioen mezu sarkorra absentzia jendetsuetan. gorputz-adarrak herrenka doaz ahuleziaren indarrean. gihar akituen borondate irmoa:

badakit bizitzen. badakit bizitzen.

bitartean... bitartean... bitartean zatoz.

gauaren mingaina aski epel dago. etzan. etzan. etzan gaitezen. aireportuko lurreratze pistan. biluzik. biluzik. etzan. asmorik gabe. asmorik gabe. babesik gabe.

## 6. EZEREZA MUGAK

estasiaren mugetan, ezerezaren mugetan. egungo ikuskizunari odola dario begietatik. denok gara biharko eguneko enigma zaharrak, estasiaren mugetan. hain goian. azal ximurreko ametsak ezin erantzi soinetik, estasiaren mugetan. hain goian. denok gara biharko eguneko asmakizunak, hosto hauskorak lebitatzen. hain goian. zuhaitzekin blagan behin ta berriz iluntzetik goizaldera, nola bestela ikasi entzuten? hain behan, hain goian.

baso kiskaliari begira, gure boterearen kea arnasten.

baso kiskaliari begira, gure ahuleziaren kea arnasten.

nire gorputza ta nire arima lo daudela bezain neurgea eta bezain ausarta izango banintz, nire buruko irudien ehizan nintzateke beldurrik gabeko jolasean. eta egiazkoa litzateke dena. egite ezkutuak baino zerbait gehiago egongo litzateke eta usteltzen diren giza-asmoak. berriro hasteko benetako aukera egongo litzateke belar gainean bide egitearren.